# EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO HHEEOOETAKO IKASTARO SEMIPRESENTZIALETAKO DISEINU, GARAPEN ETA INPLEMENTAZIOA

Dokumentu honen helburua ikastaro semipresentzialen diseinuaren gainean ikuspegi orokorra ematea da, kontuan hartuta Hizkuntz Eskola Ofizialei bideratuta dagoela eta, beraz, euskal sistema publikoaren sarean sartuta.

Nahitaezkoa dugu gaur egungo informazio eta komunikazio tresna teknologiko berriak modu dinamiko eta atsegin batez gure langintzan ere uztartzea, izan ere, gizarteak gero eta ozenago luzatzen digu "E-learning" ikastaroak egiteko eskaera. Gure xedea, beraz, denon eskura ditugun baliabideak erabilita, ikasleriak dituen malgutasun eta mugikortasun beharrei erantzutea da, beti ere, irakaskuntza-kalitateari eutsiz eta heziketa-sistemaren eskaintza hobetuz.

## A. EAEKO HEOETAKO IKASTARO SEMIPRESENTZIALAK DISEINATZEKO ETA GARATZEKO OSAGAIAK.

### IKASKETA SEMIPRESENTZIALAREN IZAERA:

Era autonomoan ikasteko hainbat teknika ikasleen esku jartzea da ikastaro semipresentzialaren helburua. Bi fase nagusitan garatuko da: alde batetik urrutiko (off line) fasea edo ikasleak klasetik kanpo era autonomoan burutu beharreko lana izango dugu, eta bestetik aurrez aurreko fasea edo ikasgelan irakaslearekin eta beste ikaskideekin elkarlanean egin beharrekoa.

### HELBURU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialeen ikastaro semipresentzialen helburu

# DISEÑO, DESARROLLO E IMPLEMENTACIÓN DE LOS CURSOS SEMI-PRESENCIALES DE LAS EEOOII DEL PAIS VASCO

Este documento pretende ofrecer un panorama general acerca del diseño de cursos educativos semi-presenciales en el ámbito de la enseñanza de lenguas dentro del sistema público de las Escuelas Oficiales del País Vasco.

Su elaboración responde a la necesidad de incorporar las tecnologías de la información y la comunicación a la educación de una manera dinámica y atractiva, y ello con el fin de atender la creciente demanda por parte de la población y sus nuevas necesidades de acceder a planes educativos que asimilen la formación permanente y la movilidad y flexibilidad sociales, todo ello atendiendo a criterios de calidad y mejora de la oferta educativa y utilizando recursos ya existentes y de acceso universal.

## A. COMPONENTES PARA EL DISEÑO Y DESARROLLO DE LOS CURSOS SEMI-PRESENCIALES DE LAS EEOOII DE LA CAV.

### MODALIDAD SEMIPRESENCIAL DE ENSEÑANZA:

El objetivo del curso semipresencial es facilitar a los alumnos herramientas de aprendizaje autónomo y se desarrollará en dos fases: por un lado la fase a distancia (off-line) de trabajo personal a realizar fuera de clase, y por otro la fase presencial o la interacción y puesta en común que se lleva a cabo en el aula con el profesor-a y el resto de compañeros de grupo.

### OBJETIVOS GENERALES

Los objetivos generales de los cursos semi-presenciales de las EEOOII del Pais Vasco son los

orokorrak ikastaro presentzialetako berberak dira. EAEko HHEEOOtako web orrialdean kontsulta daitezke: http://www.eoieuskadi.net/eu/programacion.php

mismos que los de los cursos presenciales. Se pueden consultar en la web general de las EEOOII de la CAV:

http://www.eoieuskadi.net/es/programacion.php

**EDUKIAK**

Kurtsoko edukiak hainbat unitate didaktikotan antolatuko dira eta multzo edo bloke ezberdinetan banaturik landuko dira.

Edukiok lantzerakoan bi fase bereiziko dira: presentziala edo aurrez aurrekoa bata eta urrutikoa (off-line) bestea. Aurrez aurreko fasean ikasleek irakaslearekin eta beste ikaskideekin elkarreraginez egiten dute lan. Fase honek edozein ikuspegi metodologiko onartzen du. Urrutiko fasea, berriz, aurrez aurrekoa bukatu bezain azkar hasiko da eta jarraian datorren aste osoan zehar luzatuko da, ikasleei edukiak modu autonomoan lantzeko edota eztabaida eta foroetan parte hartzeko bideak irekita.

**CONTENIDO**

Los contenidos del curso se organizan en unidades didácticas, y éstas a su vez en bloques.

Estos contenidos se cubrirán en dos fases: una presencial y una a distancia. La fase presencial (en contacto con los estudiantes) permite el análisis, la discusión dirigida de los temas o cualquier otro enfoque metodológico. La fase a distancia, además de continuar con el desarrollo de contenidos iniciado en la fase presencial, permite la discusión de manera asíncrona (cada participante según su disponibilidad temporal) y el intercambio de ideas o discusiones grupales.

**IKASTAROAREN METODOLOGIA**

Edozein hizkuntz ikastaro bezala, kurtso semipresentzial honek ere lau trebetasun linguistikoak ditu oinarri: idatzizko ulermena, idatzizko adierazpena, ahozko ulermena eta ahozko adierazpena.

Kurtso semipresentzialari esker, hizkuntza ikasten ematen den denbora erabat optimizatzen da, trebetasun "pasiboak" –idatzizko ulermena eta adierazpena, eta baita, neurri batean, ahozko ulermena ere – urrutiko fasean era autonomoan lantzen baitira. Horretarako, "off-line" fase honetan, zenbait baliabide tekniko erabiltzen dira, besteak beste, administrazioak gure esku jarritako MOODLE izeneko plataforma, BLOGAK edo beste hainbat baliabide unibertsal eta aske.

Modu honetan, aurrez aurreko fasean ahozko adierazpena era askoz egokiagoan lantzeko aukera izango du ikasleak eta irakaslearekiko zein beste ikaskideekiko elkarreraginean sakondu ahal izango du.

**METODOLOGIA DE ENSEÑANZA/APRENDIZAJE**

Como cualquier otro curso de aprendizaje de lenguas, estos cursos semi-presenciales también se basarán en el desarrollo de las distintas destrezas lingüísticas.

Sin embargo, la gran ventaja que ofrece el diseño de estos nuevos cursos semi-presenciales radica en la posibilidad de optimizar al máximo el tiempo de dedicación al aprendizaje de la lengua. Y esto es así porque las destrezas llamadas "pasivas", como son la comprensión escrita y la comprensión auditiva – así como la producción escrita-, pueden derivarse en parte hacia la fase a distancia, de manera que los alumnos trabajen y desarrollen de manera autónoma estas técnicas y capacidades (cuando y desde donde quieran). Para ello, en esta fase "a distancia" se podrán utilizar los recursos que la administración ha puesto a nuestra disposición, como MOODLE, y otras plataformas y recursos de acceso universal como BLOGS y otros.

De este modo, se consigue que la fase presencial se

pueda enfocar de manera mucho más eficiente sobre el desarrollo de las otras destrezas, las llamadas activas, haciendo especial hincapié en la producción oral y, sobre todo, en la interacción.

**JARDUERAK**

- Aukera izatekotan, testuliburua erabil daiteke, bereziki auto-ikasketara bideratuta dagoena.
- Hizkuntz gaitasunak eta trebetasunak izango dira ardatz.
- Ahalik eta *input* gehien eskaintzen saiatuko da irakaslea eta horretarako egoki diren ahozko zein idatzizko materialak jarriko ditu ikasleen eskura. Mintzamena ere landu liteke internet bidezko tresnak erabiliz.
- Komeni da idazketa esparru formaletatik at ere lantzea, foroetan edo txat-guneetan, adibidez, idazmena lantzeaz gain, taldeari kohesioa ere emanez. Ikasleen parte-hartzerik handiena lortzen saiatuko da irakaslea eta berak ere foroetan parte-hartze aktiboa izan lezake.
- Auto-zuzenketa errazteko, ahal den neurrian, ariketen ebazpideak ikaslearen eskura jarriko dira.
- Behar-beharrezko jarduerez gain, hautazko jarduerak ere eskaintzen saiatuko da irakaslea, denbora duen ikasleak praktika sakonagoa egiteko aukera izan dezan.
- Edukiak gaurkotasun eta aniztasun irizpideak aintzat hartuta diseinatu eta aukeratuko dira.

**ACTIVIDADES O TAREAS**

- Si lo hubiera, se podrá utilizar un libro de texto, preferentemente uno enfocado al autoaprendizaje.
- El enfoque será por competencias y destrezas.
- Se intentará dar el máximo *input* posible. Para ello se proporcionará el suficiente número de tareas de comprensión lectora, comprensión auditiva y producción escrita, pudiéndose también incluir tareas de producción oral.
- Junto con la escritura formal, conviene practicar la escritura informal utilizando foros o chats con el fin de practicar esta destreza, realizar seguimiento directo y proporcionar cohesión al grupo. Se procurará conseguir el mayor nivel de participación posible del alumnado. El profesor podrá tomar parte activa en los foros.
- Se procurará proporcionar las soluciones del mayor número de ejercicios posible para facilitar la autocorrección.
- Aparte de las tareas obligatorias, se intentará incluir tareas opcionales para que los alumnos que dispongan de más tiempo puedan tener más práctica del idioma.
- Los contenidos serán de actualidad y se procurará que integren la diversidad.

**BALIABIDE DIDAKTIKOAK**

Gorago aipatu bezala, urrutiko fasean baliabide birtualak erabiliko dira: MOODLE, BLOGAK, VOXOPOP e.a. Partaideak, beraz, urrutiko ikastaroaren egitura identifikatzeko gai izan beharko du. Egitura honen oinarrian informazio eta komunikazio teknologiak daudenez, partaideek nabigazio eta mugikortasun birtualaren ezaugarriak ezagutu beharko dituzte.

**RECURSOS O MEDIOS DIDÁCTICOS**

Como ya se ha descrito más arriba, en la fase a distancia se utilizarán recursos "virtuales": MOODLE, BLOGS, VOXOPOP… etc. Por tanto, los participantes deberán ser capaces de identificar la estructura del curso "a distancia", basado en tecnologías de información y comunicación y, por tanto, deberán conocer los esquemas básicos de movilidad virtual y navegación.

**EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK:**

Ikasturteari dagozkion jarduerak 29 edo 30 astetan zehar (oporraldiak kontuan izan gabe) programatuko

**CALENDARIO Y HORARIOS:**

Las actividades que correspondan se programarán a lo largo de 29 o 30 semanas (sin tener en cuenta los

dira. Asteko egun eta ordu jakin batean 2 ordu eta laurdeneko aurrez aurreko saioa izango da. Saio hauetara agertzea nahitaezkoa izango da eta ikastaro arruntetako arautegi bera aplikatuko da huts egiteei dagokienean. Urrutiko fasean egin beharreko jardueren denborak eta epeak irakasleak ezarriko ditu. Eskolatik kanpoko lanak, nahitaezkoak zein hautazkoak, egoki burutu ahal izateko ikasleak gutxienez lau orduko dedikazioa eskainiko die.

periodos vacacionales). Se establecerá un día y hora fijo a la semana para la sesión presencial de 2 horas y cuarto. La asistencia a estas clases será obligatoria y se aplicará el mismo reglamento de las clases ordinarias en cuanto a las faltas se refiera. El profesor-a establecerá los tiempos y plazos de las actividades a distancia. Estas actividades supondrán una dedicación mínima de 4 horas fuera del aula por parte de los alumnos, incluyendo actividades obligatorias y opcionales.

**JARDUEREN FEEDBACK-A:**

Ikaslearen jarduera eta lanen zuzenketa edota iruzkinak aurrez aurre zein sareko tresnen bitartez egingo dira. Irakasleak arrazoizko epeak zainduta bidaliko die ikasleei aipatutako feedback-a.

**FEEDBACK DE LAS TAREAS:**

Las correciones y comentarios del profesor-a sobre las actividades y trabajos del alumno se realizarán tanto frente a frente en la fase presencial como a través de las herramientas de la red. El profesor-a enviará a los alumnos este feedback dentro de un plazo razonable.

**EBALUATZEA ETA EGIAZTATZEA:**

Ikasturtea bukatzean ikasleak dagokion maila eta deialdirako diseinatutako probak egingo ditu ohiko ikastaroetako ikasleekin batera. Proba horiek aintzakotzat hartuta egingo da ikaslearen ebaluazioa eta bere maila ere hala egiaztatuko da.

**EVALUACIÓN Y ACREDITACIÓN:**

Al finalizar el curso los alumnos realizarán las pruebas que hayan sido diseñadas para el nivel y convocatoria correspondientes junto al resto de alumnos de los cursos ordinarios. Los alumnos serán evaluados y su nivel acreditado en función de dichas pruebas.

**ERAGILEAK ETA BETEBEHARRAK**

Ikastetxe bakoitzeko Moodleko administratzailea ikastaro semipresentzialetan matrikulatzen diren ikasleak alta emateaz arduratuko da. Gero irakasle bakoitzak bere ikasleak matrikulatuko ditu bere ikastaroan. Gaixoaldiagatik edo beste edozein arrazoirengatik irakasleak aldi batez bere kurtsoaren jarraipenari utzi beharko liokeen kasurako, balizko tutore bat ere sortuko da Moodle-n, egoera horietan ikastaroaz ardura dadin. Irakaslea ikastaroko edukiak sortzeaz arduratuko da beti. Bera ez badago, tutorea arduratuko da ikastaroa jarraitzeaz, ikasleen lana begiratzeaz eta feedbak-a emateaz. Litekeena da tutoreak berak ere ikastetxearen Moodle administratzailearen edota plataforma menperatzen

**ACTORES Y FUNCIONES**

El administrador-a de Moodle del centro se encargará de dar de alta a los alumnos que se matriculen en los cursos semi-presenciales y luego cada profesor-a matriculará a sus alumnos en su curso. Convendrá crear un tutor-a ficticio en cada curso en previsión de una ausencia del profesor-a por enfermedad, etc. El profesor-a siempre será responsable de crear el curso y sus contenidos (recursos y actividades). En su ausencia el tutor-a se dedicaría a monitorizar y dar feedback a los alumnos del curso. Es probable que el tutor-a requiera la orientación del administrador-a u otro profesor-a que maneje bien la plataforma.

duen beste irakasle baten laguntza behar izatea.

Ikasleek autodisziplinatuak izan beharko dute eta euskarri digitalen gaineko ezagupenak eduki beharko dituzte. Aurrez aurreko saioetara joatea beharrezkoa izango da eta ikasleak ofizialtasuna galduko du ikastetxeak ezarritako justifikatu gabeko hutsegiteen kopurua betetzen duenean.

Los alumnos deberán ser autodisciplinados y deberán tener cierta destreza en el manejo de soportes digitales. Su asistencia a las sesiones presenciales será obligatoria, pudiendo perder la oficialidad cuando el nº de faltas sin justificar supere el % estipulado en el reglamento.

**AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOA**

Oinarrizko euskarri gisa irakasleak edota ikastaroaren sortzaileak MOODLE erabiliko du, nahiz eta MOODLE bezain eraginkor, egonkor eta lagunkoi den beste edozein plataforma ere erabili ahal izango duen. Tresna honetaz gain, blogak, txat-guneak eta abar ere erabili ahal izango du, osagarri.

Ikasleek ordenagailu edo tablet bat eta interneteko konexioa eskura izan beharko dute.

**INFRAESTRUCTURA TECNOLOGICA**

Como soporte primario el profesor/creador-a de curso utilizará MOODLE preferentemente, aunque se podrá utilizar cualquier otra plataforma que sea igual de eficiente, estable y amigable. Su uso se podrá complementar con la utilización de blogs, chats, etc.

Los alumnos deberán tener acceso a un ordenador o tablet y conexión a Internet.

**IRAKASLERIAREN FORMAKUNTZAREN ESTRATEGIAK (DISENUA ETA TUTORETZA)**

Ikastaro semipresentzialeko irakasleak MOODLE plataforma menperatu beharko du. Baliteke formakuntza berezia edota ikastetxearen IKT dinamizatzailearen babesa eta laguntza behar izatea.

**ESTRATEGIAS DE FORMACION DOCENTE (DISEÑO Y TUTORIA)**

El profesor-a del curso deberá ser capaz de manejar bien la plataforma, para lo cual podrá requerir de formación adicional y/o apoyo del profesor-a dinamizador-a de TICs en su centro.

## B. IKASTAROAREN INPLEMENTAZIOA: HASIERAN, TARTEAN ETA BUKAERAN.

Ikastaro semipresentzialaren dineinuak trebetasun linguistikoen garapena lortzea du helburu. Horretarako, nahitaezkoa da kudeaketa administratibo egokia izatea eta baliabide teknologikoen erabilera egokia egitea.

Hori dela eta, ikastaro semipresentzialean parte hartu nahi duenari argi adierazi behar zaio hasieratik zein diren ikastaroaren helburuak eta edukiak.

Kurtsoan zehar, bestalde, irakasle/tutoreak ikasle bakoitzaren jarduera bertatik bertara jarraitu ahal izango du, agindutako lanak eta aurkezpenak gainbegiratuz.

Horrez gain, irakaslea kurtsoko edukiak eta baliabideak eguneratzen saiatuko da, ahal den neurrian.

## B. IMPLEMENTACIÓN DEL CURSO: ANTES, DURANTE Y DESPUÉS.

El diseño de estos cursos semi-presenciales se basa en un modelo que garantice el logro de los aprendizajes esperados en las distintas destrezas. Por ello, resulta esencial contar con la gestión institucional adecuada y hacer un uso racional y óptimo de las tecnologías de la información y la comunicación.

Con este objetivo, se elaborará un mapa del curso incluyendo los objetivos y contenidos de manera que resulte un esquema claro y accesible para los participantes del curso desde el principio.

Asimismo, durante el desarrollo del curso, el profesor/tutor-a podrá hacer un seguimiento del

Horretarako, irakasleen eta tutoreen arteko bilerak edo topaketak bultzatuko dira.

Azkenik, ikastaroaren amaieran, egindako lana ebaluatu ahal izango dute kurtsoan parte hartu dutenek, helburu horretarako prestatutako galdera-sorta baten bitartez, honako irizpide hauei jarraiki:

- Helburuen argitasuna
- Agindutako egitekoen egokitasuna
- Lanaren eraginkortasuna
- Ebaluazioa eta segimendua egiteko irizpideen argitasuna
- Irakasleak egindako zuzenketen zehaztasuna
- Irakaslearen prestasuna
- Erabilitako materialaren kalitatea, bai klasean, bai urrutiko fasean...

... eta beste hainbat alderdi, beti ere lagungarri badira ikastaro hauetako helburuak iristeko lanean, kalitateari eustea eta heziketa-sistemaren eskaintza hobetzea alegia, guri dagokigun esparruan berritzaile eta lehiakor izan gaitezen.

proceso personalizado, de manera que pueda supervisar el trabajo y cumplimiento de tareas por parte de cada participante.

Además, puede resultar especialmente valiosa la retroalimentación y actualización del los cursos, tanto en sus contenidos como en los recursos utilizados, y ello mediante la revisión, puesta en común y contacto permanentes entre los distintos actores.

Finalmente, los participantes evaluarán el curso por medio de un cuestionario diseñado para tal fin, en el que se podrán considerar aspectos como:

- La claridad de los objetivos
- La relevancia de las actividades propuestas
- La eficacia de las tareas
- La claridad de los criterios de evaluación o seguimiento
- La claridad de la supervisión de las tareas por parte del profesor-a
- La disponibilidad del profesor-a
- La calidad de los materiales tanto en la fase presencial como en la fase a distancia…

…así como otros aspectos que puedan resultar instructivos para conseguir el objetivo final que se pretende con estos cursos semi-presenciales, que no es otro que el de mejorar la calidad y oferta educativas, aportando renovación y competitividad dentro del ámbito que nos compete.